

**FORU DEKRETUA, EKAINAREN 26KO 74/2019 FORU DEKRETUA  
ALDATZEN DUENA. FORU DEKRETU HORREN BIDEZ KONTRATAZIO  
PUBLIKORAKO BATZORDEA ARAUTU ZEN**

**ZIOEN AZALPENA**

Kontratazio Publikorako Batzordea Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legean sortu zen, organo aholku-emaile gisa, eginkizun nagusi batzuetarako: administrazioaren efizientzia hobetzea eta araua behar bezala garatzea.

Ekainaren 26ko 74/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Kontratazio Publikorako Batzordean zenbait aldaketa egin ziren osaeran eta eginkizunetan.

**Orain, handitzen da sindikatuek Kontratazio Publikorako Batzordearen osaeran duten parte-hartzea.**

Onestekoa den arauaren aldeko txostena eman du Kontratazio Publikorako Batzordeak, xxxxxxxx(e)an egindako bilkuran, baita Toki Araubideko Foru Batzordeak ere, xxxxx(e)an egindako bilkuran.

Horrenbestez, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko kontseilariak proposaturik, Nafarroako Kontseiluarekin bat, eta Nafarroako Gobernuak 20..(e)ko .....aren ..(e)ko bilkuran hartutako erabakiari jarraikiz, dekretatzen dut:

**1. artikulua** Ekainaren 26ko 74/2019 Foru Dekretuko 4.4 artikulua aldatzea. Foru dekretu horren bidez Kontratazio Publikorako Batzordea arautu zen. Honelaxe geldituko da:

4. Honela osatuko da Kontratazio Publikorako Batzordea:

a) Batzordeburua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan kontratazio publikoaren arloan eskumena duen departamentuko titularra izanen da, edo titular horrek aldi baterako edo betiko horretarako gaitutako pertsona. Pertsona horrek, gutxienez, zuzendari nagusi izan behar du.

b) Batzordeburuordea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan kontratazio publikoaren arloan eskumena duen departamentuko Ondare Zerbitzuko zuzendaria izanen da.

c) Kide bat Nafarroako Parlamentuak bere letratuen artean izendatutako bat izanen da.

d) Kide bat Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzuko izanen da, lehendakaritzan, justizian eta barne arazoetan eskumena duen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari departamentuko titularrak izendatutakoa.

e) Kide bat Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan kontratazio publikoaren arloan eskumena duen departamentuko Esku-hartze Ataleko burua izanen da.

f) Kide bat, Toki Administrazioaren arloan eskumena duen departamentuak izendatua.

g) Kide bat, hezkuntza arloan eskumena duen departamentuak izendatua.

h) Kide bat, osasun arloan eskumena duen departamentuak izendatua.

i) Kide bat, eskubide sozialen arloan eskumena duen departamentuak izendatua.

j) Kide bat, herri lanen arloan eskumena duen departamentuak izendatua.

k) Kide bat, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren ordezkaria.

l) Kide bat, Nafarroako Unibertsitate Publikoak bere funtzionarioen artean izendatua.

m) Kide bat, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak toki administrazioaren funtzionarioen artean izendatua.

n) Epaimahaikide bat, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak izendatua.

ñ) Kide bat, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren ordezkaria.

o) Kide bat, ETEen ordezkari bat, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak izendatua.

p) Kide bat, Nafarroako Ekonomia Sozialeko Enpresen Elkartearen ordezkaria.

q) Kide bat, Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiko burua.

r) Kide bat, Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoko burua.

s) Kide batzuk, Nafarroako Foru Komunitatean % 10eko ordezkari bakoitzak bakoitzak ordezkari bat izendatuko du.

t) Idazkaria Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan kontratazio publikoaren arloan eskumena duen departamentuko Kontratazio Ataleko burua izanen da.

**AZKEN XEDAPEN BAKARRA.- Kontratazio Batzordearen eratzea**

Osaera berriaren arabeko Kontratazio Publikorako Batzordearen eraketa-saioa batzordearen hurrengo bilkuran edo aparteko bilkuran egingen da.

**AZKEN XEDAPENA – Indarra hartzea.**

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.